



ESKOLAGUNE

Ekoetxea Txingudi

H2O misioa: Ezagutu, ekin, babestu

Lehen Hezkuntza 3. zikloa

ARLOA/IKASGAIA: Natura, gizarte eta kultura ingurumenaren ezagutza

Ibaiak, aintzirak, itsasoak... Ura funtsezkoa da bizitzarako, baina merezi duen bezala zaintzen al dugu?

Abentura honetan, ura aztertuko dugu. Bere mehatxuak ezagutu eta gutako bakoitzak bere zaintzan dugun rolaren inguruan hausnartuko dugu.

Plaiaundin, etsairik nabarmenena argi antzeman daiteke: zaborra. Eguneroko arazoa, imajinatzen duguna baino askoz urrunago iristen diren ondorioekin.